

Antzar-jokoa

IÑAKI SEGUROLA



ORAINDIK jende askotxo omen da hautes-jokotan bere irudipenak hustuzera joaten dena. Ez da mirasterkoa: «gizon bat, boto bat» asmatu zutenetik, botokundetan aurkitzen du gizonak (emakumea barne dela) gizonki portatzeko eta gizonago sentitzeko egokiera.

Ikustekoa izaten da nola biltzen dituen hautes-fede gartsu batek guztiak batera, itxuraz bederen hagituz desberdinak diruditen giza-klaseak: gotzaiak eta ateoak, exekutiboak eta komun-garbitzaileak, militarrek eta intsumituak, putak eta mojak... Botokunde eguztiak elkar harturik abiaturen dira zirituz berdinetik onzi berdinetan beren paperezko esperantzak uztera. Egun horietan denak arduragabe eta pasota bihurtzen dira, etsipenak hartzen ditu eta jakinarean gainean joaten dira alfer-lanera: gure artean beti esan izan da «botoa botoa» egiten dela, eta botoa, umeak ere badaki hori, gehienean gauza zikinak, deustako ez direnak edo alferrik galduak egiten dira.

Eskoletako matematikak ere bado jolas-honetan parterrik: '1 bider 1.000', '1.000 zela erakutsi ziguten, baina oraindik ez zaigu esplikatuz gertatzen ez den 1, gauza bat mila bider edo mila buruk esanda ere beti izango baita bat eta bera, galai penatuak bere maite ezin-ukanari mila bider eskaini zion bihotz hura bakarari zen bezalaxe, tristea eta hautsia ez-ezik. Besterik esan izan du beti herriaren matematikak: «batek mila balio eta milak batere ez».

Azpeitiko Elizalde zenaren bertsio-puxka hau da berriz polita: «alkarregana inguratuta/egin ditzagun batzarrak./geuk nai degunak izan ditzagun/geu giyatzeko antzarrak». Antzar-jokoa, beraz, baina garbiketarik gabea: antzar horiek, azken aldiari gure festetan burugabetez dituztenak bezala, antzar hilak baitira.

Berbertarrak

TXILLARDEGI



EUSKALDUNEN asaba zaharren bilaketan, jakina denez, bi joera nagusi egon dira. Multzo batean, Kaukaso-zaleak daude, nolazpait esateko, Lafon usul-lariaren bidetik, eta Kintana-ganaino. Bigarren multzoan, berriz, Maghreb-zaleak daude, To-var-en bidetik; eta hauek usitez gure arbasoak nolazpait berbertarren ahaideak izan daitezke. Mitxelena, bidenabar, ez zertorren bat hauekin ez haiekin: dato-eskasiaren aurrean, isiltzea onena.

Hots, aste hauetan Kabilia Nagusian gertatu direnak ikusita, kulturaz besterik ez bada ere, arreta handiagoaz jarraitu behar bide genituzke euskaldunok berbertarren gorabehera larriak. Maghreb-eko mendialdeetan 'betidanik' zuden berbertarrak, arabiarren etorrera jendetsua dela-eta, itota gertatu ziren beren herrian. Egun % 20 besterik ez dira Marokkon (5 milioi), eta % 12 besterik ez Algerian (3 milioi). Hizkuntza 5 dialekto nagusitan banatuta dago.

Berbertar kantari abertzeak oso modan jarri dira; besterik ez, kantaldi bidez agertzen baita Kabilian Algeria batu eta arabiarra-kan kontrakto mezua.

Hori dela-eta, sekulako ospea hartu du Matub Lunes kantariak. Eta islamiar arabizaleek 'abitu' bat eman nahi izan diote. Joan den irailaren 25ean, Kabilia-ko hiriburua den Tizi-Uzu-ko kafetegri batean zegoelarik, 'mudjabin-eg' osatutako komando batek ('Islamiar Talde Armata' izenekoak), bertan bahitu du; eta 'Jainkoaren etsaitzat' salatuz, izkatatu egin du.

Urriaren 9an, 100.000 berbertar iten dira kalera. Helburua bikoitza zen: a) Matub Lunes kantariaren askapena; b) berbertarren herri-eskubideekiko errespetua. Biharamonean, eta Tizi-Uzun bertan, askatua izan da kantaria.

Kabylia-ko hiritarrak ez baitira marokkiar eta ez algeriarrak, berbertarrak baizik.

Hau ere, zoritxarrez, oso nekez sartuko da Estatu-zaleen buruetan. Geroak erranen!



Euskara bere bidetik

Irakurri dugu joan den asteo 'Herria-n' Euskaltzaindiaren ageria: bai-eta erakunde hau bildu dela aste oso batez Leioan. Bilbotik haratxago, hemendik berrehun kilometretan.

Hor agertu da, argi eta garbi, badela Euskara bat, idazgarria, denek ulertzen edo konprenitzen ahal dutena, orain denetan onartuta dena, pasatuak pasatu, nahiz, denbora berean, bere lurreko Xubero, Bizkaia ala Behorlegiko mintzaiaren abileziak eta fineziak errespetatzen dituen, gain-gainetik.

Hots, bata dela bere mintzairan Euskal-Herria eta, denbora berean, bere desbardinatasunez aberatsa!

Ba, baina norat urruntzen ote naizan ni ene ameskeriekin, erranen dit goragogo zaharrak, gure auzoko haurrek euskara ez bada-kite.

HEMEROTEKA

Egia! Gauden lur huntan gu ere, eta ez angeruetan. Deuski ez lukete balio itxudio guziek, gure etseratzen ez balire.

Baina preseski! Gibelka ari diren haur eta familia batzuen aldean, hor baitira ordean hainbeste euskal ikastegi, buraso, erakaste, apez eta bertsulari, su berri baten harrotzen eta zabalitzen ari direnak!

EMILE LARRE

Ekaitza

Ez gaitezen engaina

Eztabaida, egun, bizi-bizita da. Aste honetan Michel Intxauspeker erregio berri bat sortzeaz buruz posta bidez bidalitako galdeketa jasoko dugu. Horrek bere baitan Pirinio Garaiak eta Pirinio Atlantiarrek hartuko lituzke eta, ondoren, hiru departamendutan zatituko lituzake; Bigorra, Biarno eta Euskal Herria.

Leize handi bat dago gu eta



Trantzian, XXI. mendean lehendakari segituko duela esan du IDIGORAS Y PACHI / EL MUNDO

Intxausperen errebindikazioaren artean. Ihardetsiko digute hobe dela egitura deszentralizatu bat izatea egitura zentralista bat izatea baino. Jakina. Baina ez dugu begien bistatik galtzen deszentralizazioak ez dituela burujabetasunerako atek irekitzen.

Departamendua ez da bitarteko egitura bat. Erratzasun administratibo bat da, batere interes

politikorik ez duena. Gure errebindikazioa guztiz bestelakoa da. Gure herriaren etorkizuna erakitze-ko eskubide oro ukatu zaion herri batek ez du botere administrazioaren zenbait prerrogatibaren desplazamendu funtzionala soilik eskatzen, dagokion botere politikoa ere egitura aldatzea baizik.

SAR HITZA

ZUZENDARIARI

Ramon estimatua

Duela egun guti ikusi zintudan Bilbondo aldean. Pannel batetan zinen, oso ferde berriatu batzuren pean eta ortze urdinkara gibelean galdua; tipierazten zaituzten bizkarzain eta president espainiarren gabe. Finean, heldurik-eta zure aknera, irudi zenuen itlika zinelak txakolindegi bateatik, non zure akolytismoaren zilbor-hestea, Mikel Labaok dioen bezala, eien berri zenuen. Zeurez zebiltzan. Hain zintudan hurbil, hain erakutsian eta agerian, hain irudi zenuen, zure pozaren kontzertatzeok, solastatzera emana non zuzanaino heldu nintzen.

Hitz funtzional eta retorikoentzat astirik gabe, galdetu zenidan: «Izan al nintzete lehendakari?». Ni zur, Zaratamoko udal burutian baikigen eta ez Delphoi aldean. Lehen adikotz ikusi zintudan hain fermuki sokratiko, ezen arropatu nizun: «Halaxe da, izanen zara». Ez dio axola handirik, honelako arropatuekin hautsi izanak gizon zuhurraren lehen premisa, nehoiz ez baiezta ez uka ezer. Baina ezinbestekoa ene erantzuna, zure barmaren frankia eta laimotasunaren aurrean. Geroz, ongi gise aragarpenaz, persudatizeko talaira bihurtu, cromlech-pannela.

Ni Bilbondotik etorri nintzen Bilbobarnera, gehienetan barnetegia baino okerrago baita.

Eta horra nire gogoan zimokoak. Enganatu egoine ote dut gizon hau? Ez. Zintzoki ez. Baina, Pitiairekin ere hala gertatzen zenez, ezin eman izan nizun argibide, kondizio edo esplikatzeo estrategikorik zeri jarraiki.

Lehendakari izan zintezke, baldin eta Espainia diozun hartan Europa badiozu. Espainia, hemengo pertsona askorentzat, empresa abortu eta obsoletoa da, beste askorentzat, berriz, etengabeko mehatxua, zinetarrik deseperatuki aldegin nahi duten.

Lehendakari izan zintezke, baldin eta, lotsa guztiz, espainiar direnei ez badiezi 'Espainia proiektua' deitzen. Espainia ez baita proiektu baizik realitate, nazio, eta post-nazio, bere lege, grina txar eta onez, hartan zuk deus guti egin zenezakeelarik.

Lehendakari izan zintezke, baldin eta 'Europa proiektua' amets itzarrietan bazenerabil eta haren alde makur bazintez.

Lehendakari izan zintezke, baldin eta 'Europa proiektua' joka bazenez 'Euskal Herria proiektorekin', berau ere ez baita realitate baizik posibilitate, bere alegiazko buruzagiek behin eta berriz ostikatu, alferrikaldua. Biak, bai Europa bai Euskal Herria, dira posibilitate, eta hortxe da, posibilitatean eta beronen gainean, non agi eta ari zintezkeen, eta ez posibilitate materializatueta, post-posibilitateetan. Segur, aurkituko duzu personarik asko

parte hartu nahi duenik kultur eta giza proiektu bikoitz hortan, finean, bat baino ez baita.

Lehendakari izan zintezke, baldin eta sar bazintez Konstituzio europarraren alde, non europar (eta nonahiko) oro maila berean egon ledin, eta non gizabanako bakoitzak ukan lezan nazionalitate bikoitz hori: ethnioa (...) eta kulturala (europar).

Lehendakari izan zintezke, baldin eta ezar bazenezta eskoletan nazio europarraren historia eta suntsi bazenitza, antieuropeista eta separatista izatearen, erregexka franko, visigotho... eta haueitaiko askazia ororen historia-ka guztiak. Halaari bazintez, izan zintezke bizkarzain gabeko lehendakari, ez oso nazionalista. Izan zintezke lehendakari, oso nazionalista ez den nazio honen, egia esanik, lehendakaritza handirik behar ez duen nazio honen.

Kusirik-eta ingurua, ez dukezu hain zail, nehor ez baita ari leku hortara helzetokz ukabiika. Guztiek so dagite aurrera, dagoenera, hau da, aintziner. Baina ordea, etorkizuna ez dago begi aurrean, baina haiegarri distantzia guti-gutira, irudimen eta goetan. Izan du zu euskaraz mintzatzen entzuteko aukera. Eta, bai bitxia, besterik zara. Ramon estimatua, ni ez naiz Pitia, ni ez naiz nor. Gnothi seauton.

MANU ERZILLA Bilbo

GAIA JARRITA



Hauteskundeak EAEn

Onera egingo du bihartik bizitzak politikoez hala esan dute behintzat sarrailla guztientzat badituzte giltzak kito gizarte honen ezin eta gaitzak ez baditu haizeak eramaten hitzak

JOXE MARI ARRIETA



Batzoki: Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



ODJ: IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkariek: IÑAKI URÍA

Gerentek: FERMIN LAZKANO

Zuzendariek: MARTELO OTAMENDI

Zuzendariordeak: LUZIEZ ETXEZAHARRETA

Publizitateak: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerrak: ANTZA S.A. Industrialeko 01-02 Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria / T. 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egiltza sozialek, Publizitateak eta Administrazioak: Amso Jakituna, Ibe-I, 20010 Donostia / T. 40 90 22 / Faxa: 45 59 57

Arabek: San Antonio, 20-1 Leher, 01005 Gasteiz / T. 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroak: Iruña, Monastegia, 45-13 esk. / (Iruñiti dorrea) / 31011 Iruñea / T. 17 80 7879 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zabalburu Enpresantza, 2-1 ezkerria, / 48003 Bilbo / T. 410 40 46 / Faxa: 410 37 15

Lapurdi / Nafarroa Behereak / Zuberoak: Pannecau 14, 1/503 Posta Kutxatila, / 64100 Baiona / T. 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11